



zure zubia

**FORMAZIO
ESKAINZA**

www.maltuna.eus



**MIGUEL
ALTUNA**
Lanbide
Heziketa

Miguel Altuna LHIn Bergarako Lanbide Heziketako zentro integratu publikoa da. Profesional kualifikatuak sortzeko prestakuntza eskaintzen dugu, ikasleen garapen pertsonalean oinarrituta, talentua sorrazazi eta garatuko duen prestakuntza bizia hain zuzen ere.

Ezagupen aurreratu eta eguneratuak barneratzeko metodologia parte hartzaileak eten barik egokituz dihardugu. Eskualde mailako agente soziala izaki, gizartearekin eta inguruko enpresekin hartutako konpromisoak betetzea dugu helburu, horretarako gure esku ditugun baliabide guztiak erabiliz.

zure zubia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Salburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

EDUKIAK

01	Ezaugarriak	4
	01.1 Aurkezpena	
	01.2 ETHAZI Eredua	
	01.3 LH DUALa	
	01.4 Modalitateak	
02	Erdi-Mailako zikloak	12
03	Goi-Mailako zikloak	26
04	Espezializazio programa	60

01.1 Aurkezpena

Miguel Altuna LHIIren zeregina kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, eleanitza, eskola-elkarteak adostutako ideietan oinarritua eta ondorengo ideiei erantzutea da:

Ikasleei, beraien gaitasuna eta beharren arabera, konpromiso pertsonala eta autonomia bultzatuz. Enpresei eta gizarte-inguruneari, Bergarako zein gertuko herrietako langile eta langabeei, lanbide-formazioa areagotuz.



MIGUEL ALTUNA

ZURE ZUBIA

Erdi-Mailatik > Goi-Mailara
> Lan-mundura

Goi-Mailatik > Espezializaziora
> Unibertsitatera
> Lan-mundura

Zuk aukeratu!

01.2 ETHAZI eredua Etekin Handiko Zikloak

Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa da metodologia honen elementu nagusia.

Egoera problematiko bat planteatzea, hori erronka bihurtzea, eta prozesu osoa emaitza bat lortu arte elementu hauetan antolatzen delarik: Ziklo bakoitzeko kompetentzia tekniko eta espezifikoetan, eta une honetan izaera estrategikoa duten zeharkako kompetentzietan, hala nola, autonomia, inplikazioa, komunikazioa, etab.

Egoera problematikoak, kasu guztietan, taldeetan konfiguratutako gela bati planteatzen zaizkio. Hor, lan-prozesuak aukera eman behar die ikasleei egoera erronka gisa bizitzeko eta, hortik, behar den ezagutza sortu behar dute, soluzio hoberenak proposa ditzaten.

Ezaugarriak

Moduluen arteko erronkak

Eboluziorako ebaluazioa.

Zikloko irakasle talde autokudeatuak.

Ikaskuntza espazioen egokitzea.

5



01.3 LH DUALa


Zer da?

Lanbide Heziketa DUALa ikasketak ikastetxean eta enpresan txandakatuz burutzen den modalitatea da. Ikas-ekinezko erregimeneko ikaslea, ikastetxean nahiz enpresan jasotako kompetenziengatik eta gaitasunengatik ebaluatzen delarik.

Zergatik LH DUALa?

Geroz eta beharrezkoago jotzen da Hezkuntza Sistemaren eta lan-munduaren arteko lankidetzak, batez ere, azken urteotan bizitzen ari garen negozio-eredu berriak, nazioarte nahiz mundu mailako merkatuen aldaketak eta gizartearen higikortasunaren garapen argia kontuan hartzen baditugu.

6





Funtzionamendua

Laneratzea errazten duen eredia da, ikasleak euren Heziketa Zikloari dagokion lanpostu batean jarduten baitira programak irauten duen bitartean. Miguel Altuna LHII ez da izango ezagutza iturri bakarra eta ondorioz, ikaskuntza eredu dinamikoagoa eta eraginkorragoa da.

DUALeko ikasleak Miguel Altuna LHIIko tutorearen eta enpresako instruktorearen azalpenak eta orientazioa jasotzen ditu, ezagutza teorikoak enpresako jarduera desberdinen bidez praktikan ipini ahal izateko.

Prestakuntza eta ikaskuntzako lan kontratu edo beka bidez formalizatzen da harreman hau. Ondorioz, gazteak lan-merkatuan sartzea errazten da eta kalitatezko lanpostuak sustatzen dira.

LH DUALaren abantailak

7

Ikaslearentzat

- ✓ Benetako lan-egoeretan ikasten du, urtebeteko gutxieneko lan-esperientzia lortuz.
- ✓ Egindako lanaldiari dagokion ordainsaria jasotzen du, kontratuaren edo hitzarmenaren arabera.
- ✓ Enplegarritasuna hobetzen du.
- ✓ Gizarte Segurantzari kotizatuz hasten du bere lan-bizitza.

Enpresarentzat

- ✓ Langile kualifikatua, bere beharretara egokitua eta bere prozesuetan eta enpresa-kulturaren ikasitakoa prestatzen du.
- ✓ Langileak aukeratu eta enpresarentzako abantailak erakartzeko baliabide bat da.
- ✓ Enpresako belaunaldien errelebu errazten du.
- ✓ Kontratu-modalitateak pizgarri ekonomikoak aurreikusten ditu.

Informazio gehiago:

www.maltuna.eus

01.4 Modalitate eta hizkuntza ereduak

Modalitateak



OHIKO ORDUTEGIAN

2 ikasturte, goizez.

ESKAINZA PARTZIALA

Heziketa zikloa moduluka egiteko aukera.

LH DUALa

Zikloko 2.en maila Miguel Altuna eta enpresako egonaldiak tartekatuz.

8

Formazio osagarria

BETI ESKURAGARRI

Orga jasotzaile eta zubi garabien formazioa.

Errefortzu klaseak
(+ Ingelesekoak).

Lan arriskuen prebentzioa.



Gaurko Ikasleak Etorkizuneko Profesionalak

Hizkuntza ereduak

D EREDUA

Modulu guztiak euskeraz.

* Erdi-Mailako heziketa-zikloa amaituta,
Euskararen **Tarteko Maila (B1) titulua** lortzen da.

* Goi-Mailako heziketa-zikloa amaituta,
Euskararen **Goi Maila (B2) titulua** lortzen da.

B+ EREDUA

Modulu guztiak gazteleraz eta
aukeran zenbait modulu euskeraz.

ELEANITZA

Moduluren bat ingelesez.



Zuk aukeratu!

Enprekin elkarlan estuan

Sinatutako ia 400 hitzarmen baino
gehiago, bertako enprekin eta
mundu mailakoekin.

LAN PRAKTIKAK

Zure etxetik gertu.
Atzerrian (Erasmus +).

LH DUALa

Ikasten zauden bitartean
urtebeteko lan-esperientzia
lortzeko aukera.



Guztion Zerbitzura

Sasoi berrietara egokitutako espazioak ditugu, baliabide eta punta puntako makina eta gailuekin hornituta. Formazio prozesuak erraztuko dituzten gune aproposak.

Horretaz gain, erabilpen anitzeko aretoak eta baita komunikazio teknologiekin hornitutako gela; bertan bilerak, bideokonferentziak edo beste ekitaldi batzuk egiteko aukerarekin.

Instalakuntzen erabilera

Enplegu agentzia eta orientazio pertsonalizatua

Lanerako formazioa langile eta langabe-tuentzat
www.maltuna.eus

Etengabeko ikaskuntzako bitartekaritza zerbitzua

Lanbide konpetentzia egiaztatzea

Ekintzaitetza sustatzea: Ikasenpresa eta Urratsbat

Eragile desberdinekin lankidetzak

Ikasle ohientzako



Enpresekin Elkarlanean

TKGUNE:
Berrikuntzarako eta
hobekuntzarako
zerbitzu teknikoak

Ekintzailletza
industrian

Enpresa sareetan
partaide

Berrikuntza
proiektuei
laguntza

Langileen
beharrei
erantzuna

Eskaerapeko
formazioa

Nazioartekotza

LH DUALa

Lan poltsa
www.lanpoltsa.eus

Debagoienako eta inguruko enpresekin elkarlan estuan dihardugu. Sinatutako ia 400 hitzarmenei esker, ikasleek lantokiko prestakuntza egonaldiak etxetik ahalik eta gertuen burutu ditzakete, LH DUALa ereduari formazioa eta lanaldia txandakatzeko aukerak indarrean daude, beharren neurria egokitutako lanerako formazioa eskaintzen dugu eta enpresen beharrei erantzungo dien zerbitzuak burutzen ditugu. Lan ildo honek bizirauteko, hainbat elkarlan saretan parte hartzen dugu, Euskadin nahiz mundu mailan.



Erdi-Mailako **Heziketa-Zikloak**

02

**Administrazio
Kudeaketa**

14


**Instalazio Elektrikoak eta
Automatikoak**

18

Mekanizazioa

22

Administrazio Kudeaketako Teknikaria



Administrazio Kudeaketako Teknikaria

FAMILIA: Administrazioa eta kudeaketa.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.000 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

- Oinarrizko LH gainditua izatea.
- DBH gainditua izatea.
- IEE 1. zikloa gainditua izatea.
- 2.BBB gainditua izatea.
- LH I tituluaren jabe izatea.
- Erdi-Mailako Heziketa-Ziklo bat gainditua izatea (Teknikari titulua.)
- Erdi-Mailarako sarrera froga gainditua izatea.



FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0437. Enpresa-komunikazioa eta bezeroarentzako arreta	165	1.a
0438. Salerosketako administrazio-eragiketak	132	1.a
0440. Informazioaren informatika-tratamendua	264	1.a
0441. Kontabilitate-teknika	132	1.a
0442. Giza baliabideetako administrazio-eragiketak	132	1.a
0156. Ingelesa	165	1.a
0439. Enpresa eta Administrazioa	105	2.a
0443. Kontabilitate-dokumentazioaren tratamendua	105	2.a
0446. Enpresa ikasgelan	168	2.a
0448. Diruzaintza-kudeaketako eragiketa osagarriak	147	2.a
0449. Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2.a
0451. Lantokiko prestakuntza	380	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

Erasmus+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Orga jasotzaileen erabilera.
- Laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
- Zubi-garabien erabilera.
- Ingeleseko errefortzu klaseak.
- Errefortzu klaseak.

ZER IKASIKO DUT? ZER EGINGO DUT?

Profesional hau gai izango da:

- Enpresaren informazio-zirkuituetako barne edo kanpo-komunikazioak edo dokumentuak bideratzeko.
- Jasotako aginduak edo lortutako informazioa abiapuntu izanik, dokumentuak eta komunikazioak lantzeko.
- Komunikazioak eta dokumentuak sailkatzeko, erregistratzeko eta artxibatzeke, teknika egokien arabera eta enpresan ezarritako parametroen arabera.
- Enpresaren operatiboari dagokion euskarri-dokumentazioa kontabilitate-mailan erregistratzeko, betiere segurtasun eta kalitateko baldintzetan.
- Diruzaintzako administrazio-kudeaketak egiteko gerentziak ezarritako araei eta protokoloei jarraituz, antolakundearen likideziari eustearren.
- Enpresaren giza baliabideen hautespen eta prestakuntza-arloetako administrazio-kudeaketak egiteko, indarrean dagoen araudia eta enpresa-politika kontuan izanik eta saileko goi-arduradunaren gainbegiratupean.
- Enpresaren lan-kudeaketaren arloan administrazio-laguntza emateko, indarrean dagoen araudia betez eta saileko goi-arduradunaren gainbegiratupean.
- Merkataritza-jardueraren administrazio-kudeaketak egiteko, eta ondoriozko zerga-betebehar jakin batzuen euskarri-dokumentazioa erregistratzeko.
- Administrazioaren eta merkataritzaren esparruan bezeroari/erabiltzaileari arreta emateko jarduerak betetzeko, enpresaren/erakundearen irudiarekin lotzen diren eta ezartzen diren kalitate-mailak ziurtatuz.

NIRE IKASKETAK AMAITZEAN, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du:

1 IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- Goi-mailako Lanbide-Heziketako ziklo batekin.
- Erdi-mailako Lanbide-Heziketako beste ziklo batekin, indarrean dagoen araudiaren araberako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrita.
- Batxilergoarekin, haren edozein modalitatetan.

2 LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:


- Administrari laguntzailea.
- Bulegoko laguntzailea.
- Kobrantza eta ordainketetako administrari laguntzailea.
- Merkataritzako administraria.
- Langileen kudeaketako administrari laguntzailea.
- Herri-administrazioetako administrari laguntzailea.
- Harreragilea.
- Bezeroen arretarako enplegatua.
- Diruzaintzako enplegatua.
- Ordainbideetako enplegatua.



“D ereduan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Tarteko Maila (B1) titulua lortzen dute.”

Informazio gehiago:
www.maltuna.eus

Instalazio Elektrikoetako eta Automatikoetako Teknikaria



Instalazio Elektrikoetako eta Automatikoetako Teknikaria

FAMILIA: Elektrizitatea eta Elektronika.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Ertronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.000 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

·Oinarrizko LH gainditua izatea.

·DBH gainditua izatea.

·IEE 1.zikloa gainditua izatea.

·2.BBB gainditua izatea.

·LH I tituluaren jabe izatea.

·Erdi-Mailako Heziketa-Ziklo bat gainditua izatea (Teknikari titulua) edo Erdi-Mailarako sarrera froga gainditua izatea.



FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0232. Industria-automatismoak	264	1.a
0233. Elektronika	132	1.a
0234. Elektroteknia	198	1.a
0235. Barneko instalazio elektrikoak	297	1.a
0239. Eguzki-instalazio fotovoltaikoak	66	1.a
E100. Ingeles teknikoa	33	1.a
0236. Banaketa-instalazioak	105	2.a
0237. Etxebizitzetako eta eraikinetako telekomunikazio azpiegitura komunak	105	2.a
0238. Instalazio domotikoak	126	2.a
0240. Makina elektrikoak	126	2.a
0241. Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2.a
0242. Enpresa ekimen sortzailea	63	2.a
0243. Lantokiko prestakuntza	380	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

Erasmus+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Orga jasotzaileen erabilera.
- Laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
- Zubi-garabien erabilera.
- Ingeleseko errefortzu klaseak.
- Errefortzu klaseak.

ZER IKASIKO DUT? ZER EGINGO DUT?

Eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak, behe-tentsioko instalazio elektrikoak, makina elektrikoak eta sistema automatizatuak muntatzea eta mantentzea.

Profesional hau gai izango da:

- Instalazioak eta tresneriak konfiguratzeko eta kalkulatzeko.
- Behe-tentsioko banaketa-sareetako osagaiak eta elementu osagarriak muntatzeko.
- Eraikinetako instalazio elektrikoekin eta automatizatuarekin eta telekomunikazio-azpiegiturekin lotzen diren tresnak eta kanalizazioak muntatzeko.
- Makina elektriko estatikoak eta birakariak instalatzeko eta mantentzeko.
- Instalazioak eta tresneria mantentzeko eta konpontzeko.
- Muntaiarekin eta mantentzearekin lotzen den logistika ezartzeko.
- Aurrekontuak, dokumentazio teknikoa eta administrazio-dokumentazioa lantzeko.
- Instalazioaren funtzionamendua egiaztatzeko.

Behe-tentsioko instalatzaile baimendua lortuko duzu. Oinarrizko txartela.

NIRE IKASKETAK AMAITZEAN, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du:

1 IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- Goi-mailako Lanbide-Heziketako ziklo batekin.
- Erdi-mailako Lanbide-Heziketako beste ziklo batekin, indarrean dagoen araudiaren araberako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrita.
- Batxilergoarekin, haren edozein modalitatetan.

2 LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:


- Instalatzaile/mantentzaile argiketaria.
- Eraikuntzako argiketaria.
- Industria-argiketaria.
- Mantentze-argiketaria.
- Sistema domotikoen instalatzailea eta mantentzailea.
- Antenen instalatzailea/mantentzailea.
- Etxebizitza-eraikinetako telekomunikazioen instalatzailea.
- Telefono-instalazioen eta tresneriaren instalatzailea/mantentzailea.
- Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioen muntatzailea.



“D ereduan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Tarteko Maila (B1) titulua lortzen dute.”

Informazio gehiago:
www.maltuna.eus

Mekanizazioko Teknikaria



Mekanizazioko Teknikaria

FAMILIA: Fabrikazio Mekanikoa.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Erroketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.000 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

- Oinarrizko LH gainditua izatea.
- DBH gainditua izatea.
- IEE 1.zikloa gainditua izatea.
- 2.BBB gainditua izatea.
- LH I tituluaren jabe izatea.
- Erdi-Mailako Heziketa-Ziklo bat gainditua izatea (Teknikari titulua edo Erdi-Mailarako sarrera froga gainditua izatea).



FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0001. Mekanizazio prozesuak	165	1.a
0004. Txirbil-horroketa bidezko fabrikazioa	363	1.a
0005. Sistema automatizatuak	165	1.a
0006. Metrologia eta saiakuntzak	132	1.a
0007. Interpretazio grafikoa	132	1.a
E100. Ingeles teknikoa	33	1.a
0002. Zenbakizko kontrol bidezko mekanizazioa	252	2.a
0003. Urraduraren, elektrohigaduraren, ebaketaren, konformazioaren eta prozesu berezien bidezko fabrikazioa	210	2.a
0008. Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2.a
0009. Enpresa ekimen sortzailea	63	2.a
0010. Lantokiko prestakuntza	380	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

Erasmus+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Orga jasotzaileen erabilera.
- Laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
- Zubi-garabien erabilera.
- Ingeleseko errefortzu klaseak.
- Errefortzu klaseak.

ZER IKASIKO DUT? ZER EGINGO DUT?

Profesional hau gai izango da:

- Informazio teknikoa abiapuntu izanik, mekanizazio-prozesuak zehazteko.
- Makinak eta sistemak prestatzeko.
- Zenbakizko kontroleko (CNC) makina-erremintak, robotak eta manipulagailuak programatzeko.
- Produktu mekanizatuak egiaztatzeko.
- Mekanizazioko makina eta tresneriaren lehen mailako mantentzea egiteko.
- Kalitateko prozedurak eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioko prozedurak aplikatzeko.
- Elementu mekanikoak lortzera zuzentzen diren txirbil-harroketako, konformazioko eta prozedura berezietako makina-erremintak erabiltzeko, fabrikazio-planoetan ezarritako zehaztapenen arabera.

NIRE IKASKETAK AMAITZEAN, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du:

1 IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- Goi-mailako Lanbide-Heziketako ziklo batekin.
- Erdi-mailako Lanbide-Heziketako beste ziklo batekin, indarrean dagoen araudiaren araberako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrita.
- Batxilergoarekin, haren edozein modalitatetan.

2 LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:

- Makina-erreminten langile doitzaila.
- Metalen leuntzailea eta erreminten zorroztailea.
- Metalak lantzeko makinaren eragilea.
- Makina-erreminten eragilea.
- Industria-roboten eragilea.
- Erreminten fabrikazioko langilea, mekanikaria eta doitzaila, eredugile matrizegilea eta antzekoa.
- Tornularia, fresatzailea eta mandrinatzailea.



“D ereduan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Tarteko Maila (B1) titulua lortzen dute.”

Informazio gehiago:
www.maltuna.eus

Goi-Mailako Heziketa-Zikloak

03

Administrazio eta Finantzak	28
Zuzendaritzari Laguntza	32
Automatizazioa eta Robotika Industriala	36
Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	40
Mekatronika Industriala	44
Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	48
Mantentze-lan Elektronikoak	52
Web-Aplikazioen Garapena	56

Administrazio eta Finantzetako Goi-Mailako Teknikaria



Administrazio eta Finantzetako Goi-Mailako Teknikaria

FAMILIA: Administrazioa eta kudeaketa.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Erroketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.000 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

·IEE 2.zikloa edo UBI gainditua izatea.

·Batxilergoa gainditua izatea.

·LH II tituluaren jabe izatea.

·Erdi-Mailako Heziketa-Zikloa gainditua izatea
(Teknikari titulua).

·Goi-Mailarako sarrera froga gainditua izatea.



FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0648. Giza baliabideak eta erantzukizun sozial korporatiboa	99	1.a
0649. Bulegotika eta informazioaren prozesua	231	1.a
0650. Merkataritza-jardueraren prozesu integrala	198	1.a
0651. Komunikazioa eta bezeroarenganako arreta	132	1.a
0179. Ingelesa	132	1.a
0652. Giza baliabideen kudeaketa	99	1.a
0658. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1.a
0653. Finantza-kudeaketa	120	2.a
0654. Kontabilitatea eta fiskalitatea	180	2.a
0655. Logistikako eta merkataritzako kudeaketa	80	2.a
0656. Enpresa-simulazioa	120	2.a
0657. Administrazio eta finantza-proiektua	50	2.a
0647. Dokumentazio juridikoaren eta enpresakoaren kudeaketa	100	2.a
0660. Lantokiko prestakuntza	360	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

ERASMUS+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

Eleaniztasun aukera:

- Modulo batzuk ingelesez ikasteko aukera.
- Atzerrian praktikak egiterakoan lehentasuna.
- Aukera aparta ingelera maila hobetzeko eta aldi berean kurrikuluma aberasteko.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
- Orga jasotzaileen erabilera.
- Zubi-garaien erabilera.
- Ingeleseko errefortzu klaseak.
- Errefortzu klaseak.

ZER IKASIKO DUT? ZER EGINGO DUT?

Profesional hau gai izango da:

- Enpresaren informazio-zirkuituetako barne edo kanpo-komunikazioak edo dokumentuak bideratzeko.
- Jasotako aginduak, lortutako informazioa eta/edo hautemandako beharrak abiapuntu izanik, dokumentuak eta komunikazioak lantzeko.
- Komunikazioak eta dokumentuak sailkatzeko, erregistratzeko eta artxibatzeke, teknika egokien arabera eta enpresan ezarritako parametroen arabera.
- Enpresaren administrazio-izapideen prozesuak kudeatzeko, merkataritzaren, finantzaren, kontabilitatearen eta zergen arloetan, betiere horien ikuspegi integratzailearekin.
- Enpresaren kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa fiskala egiteko, administrazio-prozesuen eta -prozeduren arabera eta indarrean dagoen araudia aplikatuta, segurtasun- eta kalitate-baldintzetan.
- Diruzaintzako kudeaketa, finantza-baliabideen lorpena eta inbertsio-proiektuen bideragarritasunari buruzko azterlana gainbegiratzeko, ezarritako arauak eta protokolei jarraituta.
- Enpresako langileen administrazio-kudeaketa antolatzeke eta gainbegiratzeko, indarrean dagoen lan-araudira eta ezarritako protokoloetara egokituta.
- Merkataritza-prozesuen administrazio-kudeaketa egiteko, eta, horretarako, dokumentazio-zereginak egiteko, baita hornitzaileekin negoziatzeko jarduerak, aholkularitza-jarduerak eta bezeroekin harremanetan izateko jarduerak ere.
- Dokumentuak organismoetan eta administrazio publikoetan aurkeztean administrazio-kudeaketak finkatutako epean eta moduan egiteko eta bideratzeko.

NIRE IKASKETAK AMAITZEAN, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du:

1 IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- Lanbide-espezializazioko programekin.
- Goi-Mailako Lanbide-Heziketako beste ziklo batekin, indarrean dagoen araudiaren araberrako lanbide-moduluaren arteko baliozkotzeak ezarrita.
- Unibertsitate-ikasketekin, indarrean dagoen araudiaren araberrako baliozkotzeak ezarrita.

2 LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:

- Bulegoko administraria.
- Merkataritzako administraria.
- Finantza-administraria.
- Kontabilitate-administraria.
- Logistika-administraria.
- Banku eta aseguruetakoko administraria.
- Giza baliabideetakoko administraria.
- Administrazio publikoko administraria.
- Aholkularitza juridiko edo fiskaletako edo kontabilitate edo lan-aholkularizetako, edo gestoretako administraria.
- Kobrantzen kudeaketako teknikaria.
- Bezeroenganako arretako arduraduna.

*

“D ereduan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Goi Maila (B2) titulua lortzen dute.”

Informazio gehiago:
www.maltuna.eus

Zuzendaritzari Laguntzeko Goi-Mailako Teknikaria



Zuzendaritzari Laguntzeko Goi-Mailako Teknikaria

FAMILIA: Administrazioa eta kudeaketa.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Erroketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.000 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

- IEE 2.zikloa edo UBI gainditua izatea.
- Batzilergoa gainditua izatea.
- LH II titularen jabe izatea.
- Erdi-Mailako Heziketa-Zikloa gainditua izatea (Teknikari titulua).
- Goi-Mailarako sarrera froga gainditua izatea.



FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0665. Laneko prestakuntza eta orientabidea.	99	1.a
0648. Giza balibideak eta erantzukizun sozial korporatiboa	99	1.a
0649. Bulegotika eta informazioaren prozesua	231	1.a
0650. Merkataritza-jardueraren prozesu integrala	231	1.a
0651. Komunikazioa eta bezeroarenganako arreta	198	1.a
0179. Ingelesa	132	1.a
0180. Atzerriko bigarren hizkuntza	120	2.a
0661. Enpresa-protokoloa	120	2.a
0662. Enpresa-ekitaldien antolamendua	140	2.a
0663. Informazioaren kudeaketa aurreratua	20	2.a
0664. Zuzendaritzari laguntzeko proiektua	50	2.a
0647. Dokumentazio juridikoaren eta enpresakoaren kudeaketa	100	2.a
0667. Lantokiko prestakuntza	360	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

* **OHARRA:** Miguel Altunan Ziklo honen bigarren kurtsoa eskainiko da soilik.

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

Erasmus+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

Eleaniztasun aukera:

- Modulo batzuk ingelesez ikasteko aukera.
- Atzerrian praktikak egiterakoan lehentasuna.
- Aukera aparta ingelera maila hobetzeko eta aldi berean kurrikuluma aberasteko.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulatorik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
- Orga jasotzaileen erabilera.
- Zubi-garabien erabilera.
- Ingeleseko errefortzu klaseak.
- Errefortzu klaseak.

ZER IKASIKO DUT? ZER EGINGO DUT?

Profesional hau gai izango da:

- Euskarri konbentzionalean eta informatikoan informatzeko eta artxibatze sistemak administratzeko, segurtasun-baldintzetan eta kontrol-neurriak ezarrita.
- Atzerriko bi hizkuntzatan, gutxienez, ahoz eta idatziz zehaztasunez komunikatzeko.
- Zuzendaritzaren agenda eta komunikazioak antolatzeko eta kudeatzeko, haren jardura beste arlo edo antolakunde batzuekin koordinatuta.
- Ekitaldien, bileren eta gainerako egintza korporatiboen antolamendua kudeatzeko, ezarritako protokoloak eta arauak jarraituta.
- Enpresan harreman publikoetako zereginak garatzeko, beste barne eta kanpo-instantzia batzuekin elkarlanean jardunda.
- Dokumentuen eta txostenen aurkezpenak egiteko, testuak, datuak eta grafikoak integratuta, eta horretarako informatika-aplikazioak erabiliz.
- Merkataritza, finantza, kontabilitate eta zergaren arloetako oinarrizko administrazio-zereginak egiteko, prozesu horien ikuspegi global eta integratzailearekin.
- Enpresaren informazio-zirkuituetako barne-edo kanpo-komunikazioak eta dokumentuak bideratzeko.
- Jasotako aginduak, lortutako informazioa eta/edo hautemandako beharrak abiapuntu izanik, dokumentuak eta komunikazioak lantzeko.
- Komunikazioak eta dokumentuak sailkatzeko, erregistratzeko eta artxibatze, teknika egokien arabera eta enpresan ezarritako parametroen arabera.

NIRE IKASKETAK AMAITZEAN, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du:

1 IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- Lanbide-espezializazioko programekin.
- Goi-Mailako Lanbide-Heziketako beste ziklo batekin, indarrean dagoen araudiaren araberrako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrira.
- Unibertsitate-ikasketekin, indarrean dagoen araudiaren araberrako baliozkotzeak ezarrira.

2 LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:

- Zuzendaritzako laguntzailea.
- Laguntzaile pertsonala.
- Zuzendaritzako idazkaria.
- Despatxu eta bulegoetako laguntzailea.
- Laguntzaile juridikoa.
- Giza Baliabideetako sailletako laguntzailea.
- Administrazioetako eta organismo publikoetako administrariak.



“D ereduari matrikulaturik dagoen ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Goi Maila (B2) titulua lortzen dute.”

Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-Mailako Teknikaria



Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-Mailako Teknikaria

FAMILIA: Elektrizitate eta Elektronika.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.000 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

·IEE 2.zikloa edo UBI gainditua izatea.

·Batxilergoa gainditua izatea.

·LH II tituluaren jabe izatea.

·Erdi-Mailako Heziketa-Zikloa gainditua izatea (Teknikari titulua).

·Goi-Mailarako sarrera froga gainditua izatea.

FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0959. Sistema elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak	165	1.a
0960. Sistema sekuentzial programagarriak	165	1.a
0961. Neurketa eta erregulazio-sistemak	165	1.a
0962. Potentzia-sistemak	198	1.a
0963. Dokumentazio teknikoak	99	1.a
0964. Industria-informatika	99	1.a
0970. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1.a
0965. Sistema programagarri aurreratuak	120	2.a
0966. Industria-robotika	100	2.a
0967. Industria-komunikazioak	140	2.a
0968. Automatizazio industrialeko sistemen integrazioa	140	2.a
0969. Automatizazioko eta robotika industrialeko proiektua	50	2.a
E200. Ingeles teknikoak	40	2.a
0971. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2.a
0972. Lantokiko prestakuntza	360	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

Erasmus+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

Eleaniztasun aukera:

- Modulo batzuk ingelesez ikasteko aukera.
- Atzerrian praktikak egiterakoan lehentasuna.
- Aukera aparta ingelera maila hobetzeko eta aldi berean kurrikuluma aberasteko.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Orga jasotzaileen erabilera.
- Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
- Zubi-garabien erabilera.
- Ingelesko errefortzu klaseak.
- Errefortzu klaseak.

ZER IKASIKO DUT? ZER EGINGO DUT?

Profesional hau gai izango da:

- Instalazio eta sistema automatikoak arazko zehaztapenen eta jarraibideen arabera konfiguratzeko.
- Instalazio automatikoan beharrezkoak diren kableatu eta interkonexioko tresneriak eta elementuak hautatzeko, zehaztapenei eta arazko aginduei jarraituta.
- Kontrol-programak lantzeko, zehaztapenen arabera eta instalazioaren ezaugarri funtzionalen arabera.
- Tresneria konfiguratzeko eta, horretarako, komunikazio-sareak kontrolatzeko eta kudeatzeko programak garatzea, industria-automatizazioko sistemetako bus estandarren bitartez.
- Instalazio eta sistema automatikoetako planoak eta eskemak lantzeko, betiere tresnerien ezaugarriak eta instalazioaren ezaugarri funtzionalak kontuan izanik, eta lagundutako diseinuko informatika-tresnak erabilia.
- Zehaztapenak abiapuntu izanik, instalazio automatikoak abian jartzeko muntaiaren protokoloa, probak eta jarraibideak definitzeko.
- Instalazioa dokumentazio teknikoaren arabera zuinkatzeko, bere eskumeneko arazoak konponduz eta beste kontingentzia batzuen berri emanez, muntatze-lanen bideragarritasuna ziurtatzeko.
- Sistema automatikoetan instalazio elektriko eta elektronikoekin, kontrolekoekin eta komunikazio-azpiegiturekin lotzen diren tresnak eta elementuak gainbegiratzeko eta/edo muntatzeko.
- Instalazioak eta tresneria gainbegiratzeko eta/edo mantentzeko, eta, horretarako, egiaztapen-eragiketak egiteko, matxurak aurkitzeko, doitzeko eta elementuak ordeztzeko, funtzionamendua berrezartzeko.

NIRE IKASKETAK AMAITZEAN, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du:

1 IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- Lanbide-espezializazioko programekin.
- Goi-Mailako Lanbide-Heziketako beste ziklo batekin, indarrean dagoen araudiaren araberako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrita.
- Unibertsitate-ikasketekin, indarrean dagoen araudiaren araberako baliozkotzeak ezarrita.

2 LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:


- Automatizazio industrialeko sistemak muntatzeko eta mantentzeko lanak gainbegiratzen dituen taldeko burua.
- Aparatu, koadro eta tresneria elektronikoen egiaztatzailea.
- Lantegi elektromekanikako taldeko burua.
- Automatizazio industrialeko sistemak mantentzeko lanen antolamenduko teknikaria.
- Automatizazio industrialeko sistemak abian jartzeko teknikaria.
- Automatizazio industrialeko sistemetako kontrol-sistemen proiektugilea.
- Automatizazio industrialeko sistemetako neurketa- eta erregulazio-sistemen proiektugilea.
- Automatizazio industrialeko sistemetan, komunikazio-sareen proiektugilea.
- Robot industrialen programatzaile kontrolatzailea.
- Kontrol elektrikoko sistemen diseinuko teknikaria.
- Automatizazio industrialean integratutako zirkuituen eta sistemen diseinatzailea.



“D ereduan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Goi Maila (B2) titulua lortzen dute.”

Informazio gehiago:
www.maltuna.eus

**Fabrikazio
Mekanikoko
Diseinuan
Goi-Mailako
Teknikaria**



Fabrikazio Mekanikoko Diseinuan Goi-Mailako Teknikaria

FAMILIA: Fabrikazio mekanikoa.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.000 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

- IEE 2.zikloa edo UBI gainditua izatea.
- Batxilergoa gainditua izatea.
- LH II tituluaren jabe izatea.

- Erdi-Mailako Heziketa-Zikloa gainditua izatea (Teknikari titulua).
- Goi-Mailarako sarrera froga gainditua izatea.



FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0245. Fabrikazio mekanikoko irudikapen grafikoa	198	1.a
0427. Produktu mekanikoen diseinua	297	1.a
0434. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1.a
0431. Fabrikazioaren automatizazioa	198	1.a
0432. Fabrikazio mekanikoko teknikak	198	1.a
0428. Txapa prozesatzeko eta estanpatzeko tresnen diseinua	240	2.a
0429. Galdaketako moldeen eta ereduaren diseinua	120	2.a
0430. Produktu polimerikoetarako moldeen diseinua	140	2.a
0433. Produktu mekanikoak diseinatzeko proiektua	50	2.a
E200. Ingeles teknikoa	40	2.a
0435. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2.a
0436. Lantokiko prestakuntza	360	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

Erasmus+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

Eleaniztasun aukera:

- Modulo batzuk ingelesez ikasteko aukera.
- Atzerrian praktikak egiterakoan lehentasuna.
- Aukera aparta ingelera maila hobetzeko eta aldi berean kurrikuluma aberasteko.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Orga jasotzaileen erabilera.
- Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
